



---

185/2022 FORU AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa

Zerbitzua Lurralde Antolamendua eta Hirigintzarena  
Espediente zk.: AHI-063/22-P08

**Arabako Barrundia, Bernedo, Arraia-Maeztu, Dulantzi, Iruraiz-Gauna eta Donemiliaga udalerrietako lurzoru urbanizaezinean jarriko den “Azazeta” haize parkeko plan berezia onesteko prozeduraren aurreko izapidea.**

2022ko uztailaren 11n aldundi honetan sartu zen idazki batean AIXEINDAR SA enpresako ordezkariak Foru Aldundi honen esku hartzea eskatu zuten “Azazeta” haize parkearen plan bereziaren izapidetzean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ikusirik tresna horren eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez zegoela.

Ikusirik aldundi honek erregistro telematikoak egiteko gaitasun mugak dituela, AIXEINDAR SAK gordailu bat eskuragarri jarri zuen “Azazeta” haize parkeko plan bereziaren zirriborroa eta hasierako agiri estrategikoa deskargatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, “Azazeta” haize parkeak zortzi aerosorgailu eta 40 Mw-ko potentzia eolikoa izango ditu eta Barrundia, Bernedo, Arraia-Maeztu, Dulantzi, Iruraiz-Gauna eta Donemiliaga udal mugarteei eragingo die.

Parkearen eremuko lurzorua udal plangintzako hainbat tresnen bidez lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago.

Zortzi aerosorgailuak eta beren plataformak nagusiki Bernedo eta Arraia– Maeztu udal mugartean iparraldeko aldean proiektatu dira, Azazetako mendatetik (A-132) Galartza tontorreraino. 30 kV-lurpeko zirkuituak igarotzen diren zangek A-132 errepidea gurutzatzen dute eta Donemiliagako (Donemiliaga AET) azpiestazio elektriko berrirantz doaz Iruraiz– Gauna udal mugartean, Gereñu inguruan. Ibilbide horretan aurretik aipatutako hiru udalerriak gurutzatzen dituzte baita ere. Era berean, aerosorgailuen palen hegalek eta plataformen izkinetako batek Arabako Lautadako iparraldeko hiru udalerriei eragin ahal diete.

Haize parkeak sortutako elektrizitatea AET Donemiliaga azpiestazio eraldatzaile berrira eramango da 30 kV-ko tentsio ertaineko lurpeko linea baten bidez. Bertatik Elgeako AETra eramango da 220 kV-ko tentsio altuko aireko linea elektriko baten bidez.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:



Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du ondorengo arabera aztertu den espedientea ebazteko: 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzkoa; 324/2019 Foru Dekretua, uztailaren 5koa, Diputatu Nagusiarena, Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 legegintzaldirako sailak zehazten dituen; eta 17/2016 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Diputatuen Kontseiluarena, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.

Euskadiko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala (aurrerantzean, LPS) maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez onetsi zen. 2.2 artikulua arabera LPSren eremu materialaren barnean daude zortzi aerosorgailu baino gehiago dituzten, sortutako energia sare orokorrera bideratzen duten eta 10 MW baino gehiagoko instalatutako potentzia duten haize parkeak.

Aurreko paragrafoetik at geratzen diren energia eolikoko gainerako instalazioek 2.3 artikulua arabera instalazioei buruzko nahitaezko industria baimena beharko dute, eta hala dagokionean, ingurumen inpaktuaren ebaluazioa ere bai, eta ezarri nahi direnean lurzoruari buruzko legea beteko dute. Halaber, 2.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatuta dago aurreko paragrafoan jasotako instalazio eoliko bat lurzoru urbanizaezinean hirigintza plangintzak debekatzen ez duen zonetan instalatu nahi izanez gero, lizentzia lortu aurretik hirigintza legerian aipatzen den administrazio baimena lortu beharko dela lurzoru mota horietan ezarri nahi diren erabilera publikoko edo interes sozialeko instalazioentzat.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1 artikuluan xedatutako arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, *“Salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira”*.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, *“Lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeiguneguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren”*.

Xedapen hori garatzen du ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikulua. Horren arabera, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan jasotako jarduketak baimentzeko, eta gainera ingurumen inpaktuaren adierazpen indibidualizatua behar badute, eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko azalerari eragiten dietenak baimentzeko, modu osagarrian plan berezi bat idatzi eta onetsi beharko da ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan esandakoarekin bat etorritik.

Bestalde, plan berezia egiteko, izapidetzeko eta onesteko eskumenari dagokionez, 2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorritik egin, izapidetu eta onetsiko direla. Gainera, 95.1 artikuluan ezarrita dago plan partziala egitea hasiera batean udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek egin dezaketela baita ere.

2/2006 Legearen 95.5 artikuluan xedatuta dago *“3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrien kasuan, behin-behineko onespina emateko erabakia hartu ondoren, 10 eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik– plana dagokion foru aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan. 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespina behin betiko onespina izango da”*.



Ez dago 2/2006 Legean 5/98 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik. Bertan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespena emateko eskumena eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez dagoenean dagokion foru aldundiari dagokiola, salbuetsiz hainbat lurralde historikoetako udalerriei eragitea. Kasu horretan eskumena Eusko Jaurlaritzarena litzateke.

Legezko hutsune hori judizialki ebatzi da antzeko moduan udalerrri bati baino gehiagori eragiten dieten plan berezientzat 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko planentzat ezarritako eskumen arauak aplikatuz.

EAEko Auzitegi Nagusiak 2009ko irailaren 16ko 573/2009 Epaian hauxe dio: *“Ondorio horiek ez dute nahi esan udalaz gaindiko azpiegituren plan berezirik onetsi ezin denik [- albo batera utzi gabe Eusko Jaurlaritzako edo foru administrazioko sail bati dagokion sektore eskumenarekin egindakoak, 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan aipatutako plan bereziak-], baldin eta eraginpeko udalerrriak ados ez badaude eta egun indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, izan ere, 2/2006 Legean araudi aurreikuspen zehatzik ez egoteak esan nahi du legezko hutsune bat dagoela. Hori dela-eta justifikatuta dago analogikoki aplikatzea foru aldundiari bateragarritasun plangintzaren onspena esleitzen dion xedapena”*.

Horri buruzko iritzia eman zuen baita ere Auzitegi Gorenak 2014ko maiatzaren 27ko 3355/2014 Epaian (3906/2011 errekurtsioa). Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hirigintza eskumena du lau udalerriri eragiten dien Pasaiaiko Portuaren Zerbitzугunearen antolamenduko plan berezia hasiera batean onesteko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta bertan aurreikusita dago bakar-bakarrik foru esku-hartzea egongo dela eraginpeko udalerriek akordiorik lortu ezean. Horretarako:

*“1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerrri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.*

*2. Akordiorik ez badago, foru-organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badio– edo Autonomia Erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badio– bi hilabete epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru-administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze-plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki-entitateei.*

Ikusirik udaleko Osoko Bilkurek abuztuan orokorrean bilerarik egiten ez dutela, eraginpeko udalerriek akordioa egiteko epea hiru hilabetez luzatu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

**XEDATZEN DUT**



Lehenengoa. - “Azazeta” haize parkeko plan bereziaren eraginpekoak diren udalei hiru hilabeteko epea ematea akordio bat lortzeko, eta udaletako batek bere gain hartu beharko du izapidetze eta onespen prozedura.

Plan bereziaren zirriborroa eta hasierako agiri estrategikoa eraginpeko udalentsat eskuragarri egongo dira [www.araba.eus](http://www.araba.eus) web orrian eta Aldundi honetako Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren egoitzan.

Bigarrena.- Foru Agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta haren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz.

**Josean Galera Carrillo**

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua  
Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua

**Natividad López de Munain Alzola**

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria  
Ingurumen eta Hirigintza Saileko zuzendaria